# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 4114

*EBAZPENA, 2019ko irailaren 4koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zerrendan ageri diren entitateetako langileen prestakuntzarako laguntzak esleitzen dituena.*

2019ko maiatzaren 24an argitara eman zen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetako eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duen ebazpena. Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta aipatutako ebazpenean ezarritakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako laguntza hauek ematea entitateetako prestakuntza finantzatzeko:

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO UDAL-ADMINISTRAZIOAK

| Entitatea | Esleitutako zenbatekoa |
|---|---|
| Amorebieta-Etxanoko Udala | 3.324,50 € |
| Andoaingo Udala | 8.600,16 € |
| Arrasateko Udala | 12.428,99 € |
| Barakaldoko Udala | 10.885,60 € |
| Beasaingo Udala | 4.889,13 € |
| Bermeoko Udala | 5.890,52 € |
| Bilboko Udala | 163.756,39 € |
| Donostiako Udala | 56.028,38 € |
| Durangoko Udala | 3.564,50 € |
| Eibarreko Udala | 15.963,30 € |
| Ermuako Udala | 6.833,00 € |
| Errenteriako Udala | 23.208,64 € |
| Getxoko Udala | 23.313,78 € |
| Hernaniko Udala | 1.307,50 € |
| Irungo Udala | 24.799,08 € |
| Laudioko Udala | 5.938,55 € |
| Legazpiko Udala | 1.360,00 € |
| Leioako Udala | 3.539,93 € |
| Loiuko Udala | 208,50 € |
| Markina-Xemeingo Udala | 2.002,78 € |
| Mungiako Udala | 1.888,21 € |
| Orozkoko Udala | 416,00 € |
| Sestaoko Udala | 12.138,82 € |

| Entitatea | Esleitutako zenbatekoa |
|---|---|
| Urnietako Udala | 1.943,87 € |
| Vitoria-Gasteizko Udala | 39.638,37 € |
| Zallako Udala | 789,50 € |
| Zigoitiko Udala | 342,00 € |
| Guztira | 435.000,00 € |

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO FORU-ADMINISTRAZIOAK

| Entitatea | Esleitutako zenbatekoa |
|---|---|
| Arabako Foru Aldundia | 50.835,77 € |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 103.049,53 € |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 64.114,70 € |
| Guztira | 218.000,00 € |

Bigarrena.– Agintzea izapideak has daitezen entitate horiei esleitutako zenbatekoak osorik ordaintzeko.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluak arautzen duen moduan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakioke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Hala ere, aldez aurretik, erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezeztatu dezan. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetean erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua aurkeztu bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea errekerimenduari buruzko berariazko erabakiaren berri izan edo hura isilbidez ezeztatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 4a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.